

Gure errezeta osasun-langileentzat

Zer behar dugu adimen edo
garapen desgaitasuna daukagunok
kontsultara goazenean?



FEVAS



Asociación vasca de entidades en favor de las personas con discapacidad intelectual
Adimen urritasuna duten pertsonen aldeko erakundeen euskal Elkartea

OSASUNERAKO ESKUBIDEA

Desgaitasunen
bat duten
pertsonek
eskubideei
buruzko
NBEren
Konbentzioa

Artikulu

25

"Estatu Kideek aitortzen dute desgaitasuna duten pertsonek eskubidea dutela ahalik eta osasun-mailarik altuena izateko, desgaitasun-arrazoiengatik bereizkeriarik egin gabe. Estatu Kideek neurri egokiak hartuko dituzte, desgaitasuna duten pertsonek, generoarekin erlazionatutako gaiak kontuan hartzen dituzten osasun-zerbitzuak eskura ditzatela ziurtatzeko, osasunarekin zerikusia duen errehabilitazioa barne..."

Gure errezeta

osasun-langileentzat

Kontsultan, garrantzitsua da:



- 1 Gure errealitatea eta beharrak ezagutzea.
- 2 Tratu naturala eta gertukoa ematea. Helduak bagara, helduei dagokien moduan tratatzea.
- 3 Zuzenean guri hitz egitea.
- 4 Hizkera erraza eta irisgarria erabiltzea.
- 5 Aintzat hartzea laguntzaile bat behar izan dezakegula, informazioa osatzeko eta lasaiago sentitzeko.
- 6 Informazioa ondo ulertu dugula bermatzea eta zalantzarik ote dugun galdetzea.
- 7 Pentsatzeko eta erantzuteko denbora ematea.
- 8 Prozesu medikoari, txostenei, tratamenduei eta halakoei buruzko informazioa argi eta erraz ematea, ahal bada idatziz eta erraz irakurtzeko moduan.
- 9 Beharrezkoa bada, komunikazioa erraztuko duten marrazkiak, argazkiak, piktogramak, eta abar erabiltzea.
- 10 Ingurunea egokitzea: giro abegitsua, kontsultarako eta itxaroteko denbora, espazioak, aparatuak, probak, eta abar.

FEVAS Plena inclusión Euskadi

FEVAS familia-oinarria duen elkarte-mugimendu bat da, eta adimen- edo garapen-desgaitasuna duten pertsonen eta haien familien eskubideen alde lan egiten duten 13 erakundek osatzen dute.

Erakundeko kide diren elkarateak: Apnabi-Autismo Bizkaia, Aspace Bizkaia, Aspace Gipuzkoa, Apdema, Atzegi, Donostiako Goyeneche Fundazioa, Usoa Tutoretza Fundazioa, Futubide, Gaude, Gautena, Gertuan Fundazioa, Gorabide eta Uliazpi.



Asociación vasca de entidades en favor de las
personas con discapacidad intelectual
Adimen urritasuna duten pertsonen aldeko
erakundeen euskal Elkarte

Colón de Larreátegui kalea 26, behe C, 48009 Bilbo
Tel.: 94 421 14 76 / comunicacion@fevas.org
www.fevas.org

Laguntzailea:



BERDINTASUN, JUSTIZIA
ETA GIZARTE POLITIKETAKO SAILA
DEPARTAMENTO DE IGUALDAD,
JUSTICIA Y POLÍTICAS SOCIALES